

ALKARTASUN-BIDEZ AZKATASUN-ALDE

LANKIDEN AUZO-AURREZKI ONTZIA ekonomi-sailletan eta gizarte arazoetan ZUZENTASUN-MIÑEZ eta ZINTZOTASUNEZ ALKARTASUN-BIDEZ AZKATASUN-ALDE JOKATU NAI DABEN GIZON ETA BAZKUNDEAK sortuarazi dabe.

LANA da jatorriz gizonok daukagun eskuartea geure almenak landu, izadia ugaldetikortu, urkoai lagundu ta danontzat bizikera egokiagua sortuarazoteko.

Gizonki jokatu nai dabena lanari gogoa eldu bear dautsa ta lanaren bidez jaso bear dau bere burua ta gizadia omuratu.

Danoi ondo jatorrakugun eta danoi palta egiten daukun LANA jzelan izan legike geienetan morroitzapean egin bearra? Azkatasun-miñak langilleen artean indartsua da morroitzaren garrantasuna iñork baiño obeto dakielako.

Lan-arazoetan bada beste arantza bat be bein baiño geiagotan: lanbideak urri edo zikoitz.

Ardura onaitan gizonki jokatzeko ez da bakarrik lanerako gogoa izan bearra: bada beste eginbear bat be: lanbideak eraltzeko alegiñak eginbearra.

Gaur al-legikezan eta gaurkoz jagokuzan lanbideak jmelan sortu edo eraldu dagikeguz BAKARTI?

LANA onartu gura dogunok ALKARTASUNA maite bear dogu.

LANA otseintzatik jasoteko ta berari jagokunez eraltzeko ALKARTASUNA bear dogu eguneroko ogia bera baizen beartsu.

Geienon eguneroko ogia garrastasan gabe ez daikigu beste bidez eskuratu ALKARTASUN-BIDEZ baiño. Gizatasunik ezin daike loratu ASKATASUN-gabe ta askatasun-gabe irabazi edo eskuratu daikwgun ogiagarratza baiño ezin izan leike.

OGIBIDEA izateko LANA bear dogunok egunean baiño egunean AZKASASUNARI garrantzi andiagua emongo dautzagu. Bafia bestetik AZKATASUNA geruago ta urrunago izango dogu ALKARTASUNARI gogoz eltzen ez badautzagu.

ALKARTASUN bide barri bat sortu dogu LANKIDEN AUZO-AURREZKI ONTZIAren bidez.

ORAIN BATZUENTZAT ETA GERO BESTETZUENTZAT

AUZO-AURREZKI ONTZIA orretarakoxe da: gaur artzen dabena biar emon al dagikeen edo orain emoten dabena gero jaso al izan dagien. ONTZI orren bidez emoten dabena eta artzen dabena buztartzen ditu ALKARTASUNAK.

Nekazariak eta arrantzaleak, industri-langilleak eta egitzailleak, zarrak eta gasteak, zartzarora begira edo ogibide edo lanbide-billa aurreratzen dabena, danak alkarri lagunduarazoteko eran jartzen ditu ONTZI onek.

Alkartasun-oharrez sortu diran bazkondeak eta ez xxxxxxrik bakarti dabilkezanak eraldu dabe AUZO-AURREZKI ONTZI au. Ez da sortu bakarti-entzat eta orixegaitik bere laguntza ZINTZO ta GIZONKI, batak bestearen onari begibatuz aurrera egin gura dabenei edo besteon laguntzari zuzentasunez erantzun nai dautzenei zabaltzen dautse bere eskua.

ALKARTASUNEAN fedea izatea orixe da: geuregan bezelaxe besteengan sinestea ta geuretzako artzen dogun neurria bestentzako izatea.

Orixegaitik LANKIDEN AUZO-AURREZKI ONTZIA danon artean zuzendu daikwgun AURREZKI-ONTZI berezia da.

DANON BURUZPIDEPEAN

AUZO-AURREZKI ONTZI au esku hartzeko luzatzen dauskuenak eta emote-ko zabalitzen dabena danok batera jokatzeko danon buruzpidepean dago.

Eskua luzatzen dauskuenak euren ondasunak euren erantzuepen-oinarri ONTZI onetan jarri ditue ta ONTZI onetara eurren aurrezkiak dakazena AURREZKI-ONTZI onetako ondasun eta eskuarte danen buruspidepean zerikusitau dauke euren ordezkarien-bidez. Orrela alkartasunak danak buztartzen ditu ta zintzotasunean batzuek besteai laguntzeko eran izango ditu.

Aurrezkiariak AUZO-BATZARRETAN aukeratzen ditue euren ordezkariak eta batzar orren eta beste idazki edo jakin-arazokhipidez izan dagikez jakitun aurrezkiak zertan dabilten.

ZINTZO ta ARGI buruspidepean dan ontzia da LANKIDEN AUZO-AURREZKI ONTZIA. Obeto zuzendu balike aditzen emotea besterik ez daukagu: orixe egin bear dabe aurrezkiarien ordezkariak eta aginpiderik dauken zuzendari danak. Orixegaitk diñogu DANON buruzpidepean dagola bazkunde au.

ZINTZOTASUNA izan bear dau ALKARTASUNAREN aria ta emaitza.

Orainarte zelan jokatu daben eta zer egin daben danok ikusteko ta aztertzeko moduan dago gure errietan. Alkartasunean zintzo jokatu dagienak ondo dakie ta jokatu gura dabenak aurrera errantz ikusiko dabe.

AURRERAPIDE-AROTAN

Gauza asko ditugu barriztu ta aurrerapidean jarri bearrekoak.

Berez ez da ezer egingo.

Azkatasuna bear dogu barrizketa ta aldakuntza saillek lantzeko.

Azkatasuna indartzeko sustarrak sakon eta zabal izan bear ditugu ekonomi sailletan. Guk beste lore ta emaitzez geure buruak eta erria loratzeko alkartasuna sendotu dagigun eta eragozpenik gitxienegaz sendotu daikegu aldi onetan ekonomi sailletan. Sail orreitan ondo oinarrituta ez dagozan gizon eta errien burubiek onak izanarren errantz ito daikez.

Lanean edo lanerako ondo ornitzen ditugun gizonak dira gure erria azkatu ta jasoko daben gudariak. Gizonen eta erriaran askatasun-egarri ez gara gizonki jokatzeko ta beti zintzotasunean bizitzeko eskubide orixe bear dogulako haño. ta

Bakoizkeria igungarri jaku ta alkartasuna gogoko danon onerako bide oberik ez dogu ikusten.

ZUZEN jokatzeko ALKARTZEN gara ta ALKARTASUN-BIDETZ guaz AZKARTASUN-ALDE.

AUZO-AURREZKI ONTZI onetan onak xokordituek dira.

Aurrezkiariak badakie BAZKUNDE au zer dan. Zerizan legiken DANON artean erabagiko dogu.